

## **BALOREZKO PROPOSAMENA:**

Gimnasio honek, erregai fosilak alde batera utzita, instalazio jasagarrien eredua sustatzen du, eta aldi berean, osasuntsu egoteko kirolak duen garrantzia azpimarratzen du.

Donostiako zonaldean, kirol-zaletasun handia dagoela aztertu dugu, eta hori gutxi balitz, industria askoz inguratutako eremua denez, ekologiari bultzada emateko ezinbestekoa dela iruditzen zaigu. Gaur egun, geroz eta jende gehiago dago arduratuta Lurraren egoera kaxkarra dela-eta, baina baliabide faltan ondorioz, askok eta askok ez dute honi aurre egiteko ekintzarik burutzen. Merkatuko hutsune hori betetzeko asmoz, kirola eta ekologia uztartzea helburu duten biztanleei kausari erraztasunez laguntzeko aukera ematea da gure xedea, eta ahal izanez gero, eredu hori inguruko beste kiroldegi eta gimnasioetara zabaltzea.